

26. IRADOKIZUNA: PRIBATU BATEK MEZU ELEKTRONIKOZ

DATA: 2018/05/01

2006ko LPPa oso modu irregularrean garatu da. Planifikatutako gauza asko egin gabe daude, horregatik, aurreko LPPa berritzeko eta gaurko egoera errealera egokitzeak aukeran gaudenez, nik, -----, Lezamako herritar legez, hauxe eskatzen dut:

Herriko nekazal lurrak, Aretxalden, balio estrategiko handiko nekazal lurra legez izendatuta dagoena, bere horretan uztea eta "industrial" kalifikazioa izateko zuena, aldatzea eta kentzea, horrek dakarkion gainartifizializazioagatik, eta nekazaritzarako lur eremu aberatsa murriztu eta galduko litzateke/ako.

Garapen ikuspegi hori zaharkituta dagoelako eta guztiz desorekatua delako Lezama moduko herri txiki batentzat. Gainera, patrimonioa babestu behar de/a dio abantze honek, eta gure patrimonio aberatsena LURRA da; ez lur "eraikigarria", bizitza ematen duen lurra baizik, ekosistema oso bati eusten diona. Gure identitatea, azken finean.

Ikusita inguruan badagoela industriarako erabili diren guneak eta gaur egun abandonatuta edo itxita daudenak, uste dut berrerabili daitezke/a lur berriak okupatu barik.

Protección de ámbitos de interés natural/stico" esten zaion horri, bertan dogo, zaindu dugulako eta zaindu behar dugulako. Aipatzen da txostenean nekazal lurrak eta bertako basoak esp/otazio ikaragarria jasan izan dutela azken urteetan urbanigarritasunagatik, eta sano errekurtsu natural gutxiago gelditzen direla /ehen sektorerako eta baita NATURA berarentzat ere. Horregatik eskatzen dut Aretxaldeko LURRAK nekazal balio handiko lurrak izaten jarraitu dezatela.

Bestalde, planifikatutako etxe-bizitza kopuruaren aurre-ikuspenak handiegiak izan ziren; ikusi dugu urte hauetan etxe-bizitza berririk ez de/a eraiki eta eskaerak ere ez datozela bat egindako planifikazioarekin. Populazioa ez da handitu. Horregatik eskatzen dut kopuru hori beharrian errealei egokitzea eta datu berrietan murrizketa horiek agertzea. Eta egingo direnak, etxe-bizitza sozialak izan daitezela, herritarron eskura egoteko modukoak.

Basogintzari dagokionez, norabide bakarreko ustiaketa geldiaraztea eskatuko nuke, gure herriko paisaia guztiz aldatu duelako eta basoen izana desagertarazi duelako. Produktibitatea neurri batean ondo dogo, boina beste modu batekoa izan beharko luke. Posible da kalitatezko egurgintzara dedikatzea bertoko espezieak landatuz eta ez urte gutxiko probetxurako etekinak/ortu nahi izateagatik gure lurra, errekek, uro, bizimodua, paisaia... hipotekatu. Horregatik uste dut LPPak kontutan izan behar dituela basoak babesteko ildo zehatzak eta galarazi gaur egun monolandaketarako erabiltzen diren espezie kaltegarriak, ez ditut aipatuko bistan daudelako.

Beste barik, kontutan izango duzuelakoan. Marijo